

Brunei'ko sultan-erria

Borneo iparraldera dago, Txina'ko itxasoan. Ango uritarren biziak, maitagarrien ipuin bat dirudi.

Ala'ren begipe atsegintsuan, sultana arduratzen da bere menpekoai ezer be falta ez dakioen


Christian CASANOVA'k

BORNEO iparraldean, Txina'ko itxasoan, errialde txiki bat dago, Brunei'ko Sultan-erria deritxona, bere bizia maitagarrien ipuin dirudiena.

Egi-egiaz ar-orioaren beste mirari bat baiño ez degu; au barik, ba, itxas-mapan ozta-ozta agertzen dan ugarte txiki au ez litzateke ezaguna izango, an lan dagien Ingles Koloni Ministeriokoen artean izan ezik; Brunei, ba, Inglatera'k munduan euki ditun kolonietatik azkena ta Churchill bere ipuin-gizurena eta daroan bizitankera berezia moldatu eutsona. Sultan-erri au aberatsa da-ta, jolaska artu daike edestia, aaztu bere izatasun estu ta bearrezkoe-nak, eta baita bizi be ametsezko mundu baten, joandako batzuk gomutaratu.

Azkenengo ametsa

Sultan'aren azken-ametsa munduko polo klub edo jolaslekuri- ederrena jasotea. Ortarako Euro-pa'ko arkitekto-rik eta injinierori- onenai dei egin yake; onei aurretik adierazo yake, gainera, jolasleku-aren balioak ez daukala garrantzi-rik «munduko ederrena» izan ez- kero. Au egiten dabena-kon- kurtso bat irabazi ondoren-Sul- tan-erriko deduzko uritar izenta- tuak izango dira, egindako lana- ren saria jasoz gainera. Inglesak eta malaitarrak aske daukie sarre- ra asiar paradisu-urako, baiña le- geak babesten dabe erria turisten kontra; amerikarrai batez be ez yake izten bertan sartzen, anga bi- zi-jokabidearen aurka doazalako onein oitura ta bizikera gaurkoa.



Sultun'aren eskaranga ametas: munduko guta-juldaleburik ederrera

Frantsesak be nekez lortzen
 ditte an sartzeko baimena. De
 Gaulle jeneralaren erruz da ori,
 ezin ezin aurkitu izan bait eban
 sultan'aren mapan, eta itzalean
 eban gainera Sultan'ak Paris'
 esan egiti eban ikusaldia. Eskual-
 de onak Borneo'ko %1 lurraldea
 eskirik artzen ez dauan arren,
 eta be Ugarte aundiak emoten
 dituen 24 milioi toneladatik erdila
 eskirik artzen da. Guxi-gorabera
 100.000 arima daukatz, eta usde
 gurez eskirik bakotza ar-orio-
 an sartu dau zortizireun bider
 ingo norbere egiazko pisua.

Urtar sudio zainduak

Urtar sudio zainduak

1961

terria aberatsa menpekota izardiak
 egiten ez dauana. Bestera, bai,
 Ala'ren begipe atsegintzuan, Sul-
 tan'ak aita-ardura dau menpekos-
 tatik inortxon ezer falta ez da-
 kion. Leen-bearrizaneke onduan-
 nak, eta onen artean dagoz bere-
 billak, margozko telebista, osu-
 kuntza ta aziketa, Sultan'ak eme-
 nak dira duban. Ederkera be zaiu-
 tua dago ta islamitar eragin ka-
 tuzko koloni egikera zarrak bai
 ez datorren etanik ez da ontzat
 artzen. Urtaun erdian jasota da-
 goan mezkita aundiak ango biz-
 tante guztiak artu leikez barrian.

Urtar sudio zainduak

txorakeri barik ara Mahoma'ri otoitz egiten doazanen begiak.

Brunei'n ezta ezagutzen kirio-dardararik ar-orioaren salneurriari buruz. Urre baltza ateraten da, laterriartekoen eskabidea etenbakoia da-ta; baiña, egia esan, Sultan-erria biziko litzateke estuasuñ barik gaur baturik eta mundu osoan alik eta txaubide (inbersiño) onenetan ipiñita daukanaz.

Uriburuko kaleak etxaide sotil dira aspalditik, antzetsu itzalpetuta eraikille zarrak asmau ebezan euzki-ebagitze bikaiñez. Aitatu daikeguz baita, ain goi izan ez arren, haban-zugatzak egiñiko euzki-utsunak, Alejo Carpentier idazleak goraipa ebazanak, espaiñar alarife zarren buru asmotsu ta trebetasunak sor-azoak nunbait. Uriburutik kanpo aurkitzen dira emen bizi diran millonario askoren landetxeak. Baratz aundiak dagoz egazkin txiki ta elikopteroentzat bide bereziz orniduak,

koloni taiuko «bungalows» edereez inguraturik.

Alan eta guzti be, ez dogu ezertxo oso-oso danik; Koloni Ministerioaren egunkariaren arauetat, Brunei'k bere buru-jabetasun osoa artuko dau 1984'an, eta Sultana bildur da gudari ta izkillu indarrez askotaz be sendoago ta adoretuago diran bere auzotarren diru-egartia dala-ta. Bitartean, millaka bruneitarrek polora jokatzen dau, bear bada zaldi-saldobategaz euren lurak jagon eta zaintzeko asmotan; India'ko «zaldi-saldo arinaren» leikide, antzadanez, euren ar-orioa ta polo-jlastokiaren irrikaz dabilzanek euren kontra botako dabezan tanke ta egazkiñai agiñak erakusteko, ain zuzen be. Gure naikunde bizi da Brunei'k jarrai daijala aurrerantzean be, jentea atsedeen-tokian lez egonik bizi izaten. Ain gitxi ezagutzen ditugu onako lekuak!

Euskeratzaile: Aita ONAINDIA



Ezkorrak eta baikorrak

Ba-liteke arrazoi ezkorrak izatea... baiña bitartean baikorra bizi izaten das obekien.